

Hiriko-Espazioak noiz eta nola bihurtzen dira norberaren tokiak?

Iraola Mendizabal, Imanol*

RESUMEN
LABURPENA
ABSTRACT

La ciencia geográfica realiza diferentes estudios y divisiones del territorio en base a las corrientes epistemológicas: la más tradicional ha sido la regional, distinguiendo a su vez la geografía política, natural o económica. A lo largo del presente texto el enfoque empleado es el de la geografía humanística. Se desea alcanzar una visión cultural del espacio, aproximándonos al pensamiento del ciudadano. El espacio concreto donde se desarrolla el artículo es el entorno de la bahía Pasaia.

Geografiaren barnean egon diren korronteeek lurraldea aztertzeko banaketa anitzak egin dituzte. Ohikoena eskualdeka egindakoa izan da; hau politikoa, naturala edo ekonomikoa izan zitekeen. Guk testu honetan aurkeztuko duguna ikuspuntu geografiko humanistikoatik izango da. Lurraldearen ikuspuntu kultural batera ailegatu nahi dugu eta hiritarraren pentsaerara hurbildu nahi dugu. Aztertuko dugun espazio zehatza, Pasaia Badiaren ondoan dauden auzoak eta herriak izango dira..

The different trends in geography have given rise to various divisions when analysing the territory. The most common is division by regions, which can be political, natural or economic. The division presented in this article is from the humanistic geographical perspective. Our goal is to show a cultural perspective of the territory, and look at public thought, specifically analysing the towns and neighbourhoods around the Pasaia Bay.

PALABRAS CLAVE
GAKO-HITZAK
KEY WORDS

Bahía de Pasaia, geografía humanística, diversidad cultural
Pasaia badi, geografía humanistikoa, kultur aniztasuna
Pasaia Bay, humanistic geography, cultural diversity.

* Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.

1. GEOGRAFIA HUMANISTIKOA EZ OHIKO ESPAZIOETAN

Aurkeztuko dugun artikulua espazioaz hitz egingo du; baina espazio hau ez da azalduko modu objetibo eta zehatz batean; gure helburua zera jakitea baita: hiritarrak nola joaten diren bere egiten bizi diren hiria, edo zehatzago, bere tokiak, toponimiak. Hortaz, gure testua jarraitzen ari direnak toponimien garrantziaz jabetzea nahiko genuke. Izenburuan ez ohiko espazio adjektiboa aipatzen dugu eta, horrekin, hiriko espazio suntsietan atentzioa jartzea lortu nahi dugu. Sailkapen horretan sartuko ditugu hiri postindustrialean oraindik berriro gabe dauden espazioak, horiek izango baitira gure ikerkuntza eta narrazioan interes gehiena sortzen dizkigutenak: industri handien inguruak, portuetan abandonatuta dauden instalazioak, hiritarren eguneroko bizitzan mugarririk funtzioa betetzen dituzten industria garaiko instalazioak, tximiniak, argindar etxetxoak, garabiak... eta etxebizitzak blokeak osatzen dituzten pisuak. Frankoren diktaduran garapen garaian sortutakoak, bai etxe soil gisa paisaian agertzen direnak bai gaur egun nortasun handia duten auzoak eta herri industrialak izandakoak. Hauek, postmodernismo garai hauetan postindustrial bezala sailkatu behar ditugu.

Geografiaren barnean egon diren korronteek lurraldea aztertzekeo banaketa anitzak egin dituzte. Ohikoena eskualdeka egindakoa izan da; hau politikoa, naturala edo ekonomikoa izan zitekeen. Guk orain aurkeztuko duguna ikuspuntu geografiko humanistikoa izango da. Lurraldearen ikuspuntu kultural batera ailegatu nahi dugu eta hiritarraren pentsaerara hurbildu nahi dugu, akademian bakarrik ez da hasten eta amaitzen geografiaren galderen eta erantzunen mamia.

Espazioaren hausnarketa honetan narrazioa erabiliko dugu diskurtsoaren ildoan; horrela argi eta garbi geldituko da adierazten ari garenekiko gure jarrera; geografia hau subjektiboa da eta izaera hori azpimarratu nahi du. Ikerlaria ez da modu hotzean agertzen errealitatearen aurrean, beste errealitateak ere posible direlako. Testu honetan leku zehatzak eta ezagunak aipatuko ditugu, baina gure helburua solasaldi teoriko batean aritzea da, hots, guk erabiliko ditugun adibideak irakurleak bere “tokiekin” ere ilustratu ditzakete aldi berean, eta modu honetan espazioaren ikuspuntua izugarri hedatzen da.

**2. ERLAZIO
HUMANISTIKOAK
ESPAZIOAN,
ELEMENTUAK
ETA PROPIETATE
AIPAGARRIENAK**

Espazioa eta pertsonak, pertsonak eta nortasunak, pertsonak eta belaunaldiak, lekuen bilakaerak:

Gure geografian lekuak pertsonekin egongo dira lotuta; baina, aldi berean, nola daude lotuta pertsona horiek bere tokiekin. Komunikazio hau idazterakoan, eta irakurleei azaltzeko Pasaiaiko badiaren irudia erabili dut, nire buruan behin eta berriro agertzen da irudi hori bueltaka; gainera jakinarazi nahi dut ni ez naizela pasaitarra, han egin dut lan urte askoan, baina baieztatu nahi dut lekuekin lotura bat dagoela, espazioak baduela gizakiaren izaeran eta pentsaeran garrantzia. Espazioa maitatu egiten da, espazioa ulertu egiten da eta ikasi egiten da. Espazioan gertatzen dira gure ametsak. Espazioaz hitz egiten dugu, giza harremanak bere osotasunean adierazteko espazioa toki bihurtu behar da; nahiz toki hori izan lanera joaten garen auzoa, edo herria. Bertan gure amorruek eta ilusioak nahasten dira, zapaten azpian daukagun espaloiarekin, non gure begirada bukatzen den zentral termikoaren tximinian, baina gu geuk badakigu hor ez dagoela amaiera bat hasiera bat baizik, hor gure imajinazioan nahasten dira itsasoa, makina, lurmuturra eta gizakia, borrokatzen daude edo maitasuna egiten ari dira...auskalo, nork daki. Pasaiaen irudia ere helburu geografiko moduan erabili nahi dut, espazio horrek, sarreran esaten nuen bezala, espazio postindustrialaren baldintza guztiak betetzen dituelako: birmoldaketa industrialak jasan du, paisaian elementu industrial adierazgarriak daude eta gainera bertako jendeak barneratuta dauzka irudi horiek: tximiniak, depositoak, portu instalazio hondoratuak, “escaleras” deritzon pasagunea, etxe blokeak, Itsasoaren Etxea, merkataritza bolumen handiko itsas kaboteajearekin lotuta...

Modu narratiboan azalduko dut, berez, landa-lana edo behaketa ibilialdi bat izango zena modu ortodoxo akademizistan hitz egingo bagenu. Modu horretan esplikatuko ditut badian dauden pertsonen arteko jatorri desberdinak, bai lehendik daudenak bai gaur egun etorri berriekin, eta eguneroko bizitzan dagoen giro atsegina.

Atenzioa deitu dit hango giroak: sartu naizenean taberna nahiko ilun dago, nire begiak egokitu dira argitasun berrira, bi telebista daude batera martxan, batek bakeroen pelikula (uste dut ETBren bigarren katea zela) eta besteak futbola, lau gizon kartetan, bi noizbehinka euskeraz ari dira, beste bat portuguesez, hitz egiten duela antzematen da eta azkena erderaz ari da.

Gure ondoan, mostradorean, gizon beltz bat, beste muturrean gizon ilehori handi bat, ukrainiarra edo... Sei pertsona hauek, teorian, nortasun oso desberdinak dituzte, eta nik ere bai, nahiz eta behaketa egiten egon, ni nire ikerketaren barnean bainago, zalantzarik gabe. Modu honetan ikerlaria ere ikertu daiteke, ikerlaria elementu subjektibo bihurtzen da. Desberdintasunak deberdintasun zazpiok Pasaiaiko badia, espazio

amankomun bezala dugu une eta gune horretan; bakoitzak espazio horri eskakizun desberdinak egiten dizkio, bizitzari berari bezala, baina denon artean espazio horri bizitza ematen diogu, animatzen dugu, eta anima hitzarekin esanahi sakon horretaz ere ari naiz, gure barne pentsamendu horiez. Pasaiaiko badiaren inguruan betidanik egonda jatorri nahasketa hori eta hizkuntzan adierazten da. Jendeak hizkuntza asko darabiltza: euskara (marinelen kutsu horrekin gainera); espainola, galegoa, portugesa, gaskoinera eta gaur egun hizkuntzen espektro hori izugarri aberastu da... espainola da nagusi, nahiz eta euskararen normalizazioa belaunaldi gazteetan izugarri landu den ikastetxe guztietan, bai publikoetan bai pribatuetan. Euskararen etorkizuna ezin da pentsatu soilik modu ilunean, bere normalizazioa oso modu emankorrean lantzen ari baita bertan.

Historiako partaideak gara guztiok, baina aldi berean belaunaldi desberdinetako izakiak, historia desberdinen ataletan kokatzen gara, hau da, belaunaldiez ari gara hausnarketa egiten; baina guztiek (belaunaldi guztien batuketak) historia bere osotasunean betetzen dute eta aldi berean guztiok toki espazial berdinen lekuko historikoak gara. Hori bai, gure diskurtsoan geldiuone bat egin behar dugu, lekuak ere bere bilakaera du, hau da, belaunaldi desberdinak eraikuntza eta leku desberdinez (komunikazio esparru baten barnean) hitz egin dezakete aldi berean, nahiz eta koordenada geografiko berdinetan egon. Espazioak bilakaera objetibo bat du, baina pertsonen idearioan bilakaera hori izugarri aberasten da belaunaldi ezberdinekin. Eta horri gehitzen badiogu bakoitzak leku batean bizitzeaz egiten duen definizioa, ikerketaren egin beharra era infinitoan luzatzen dugu. Espiral hau are zailagoa egin dezakegu espazio horrekin bakoitzaren nahiak nola lotzen diren ikusten badugu eta nahi horien garaietako oroimenak bihurtzen direnean, espazio hori izugarri aberastuz. Zertan ari ote dira pentsatzen mostradore ondoan dauden gizonak? Utzi duten lurraren oroimenetan, edo momentu honetan zapaltzen ari diren lekuan jartzen dituzte bere ilusioak, beti ere etorkizunari begira.

Espazioak bilakaera objetibo bat dauka. Pasaiaiko badiako ingurua, orain arte ezagutu duguna aldatuko egingo da segituan, bortizki, hemendik oso gutxira, lantegi zaharrak eta portuko pabeloiak botatzen ari dira eten gabe. Espazio berdina interpretazio desberdinak izan ditzake: batzuentzat beraien lantokia izandakoa botatzen ariko dira, eta berarekin bere gazte denborak; inguruko zaharrentzako eraikina bota ondoren bururatuko zaie zer ikusten zen hor eraikuntza hori altxa baino lehen; gazte askoren aurrean, urte askoan itxita egondako eta hondatutako lantegi horiek bota egingo dituzte. Beraiek ez dituzte inoiz martxan ikusi, hor gordeta ibili ziren txikitan, esploradoreak izan ziren. Txikitan lantegi zaharra jauregi bihurtu zen, bai, bere gurasoek lantegi horiez hitz egiten zuten... Espazio horiek kasu gehienetan bertakoentzako

toki bihurtzen dira, bere bizitzak hor igaro dira, esaldi laburrekin, baina bizitzako une eta gune desberdinak laburtzen dituztenekin belaunaldi ezberdinetara hurbilduko gara bizitzako ekintzekin. Baserria utzi eta fabrikara joan behar, lan baldintzak gordinak jasan behar, familia aurrera atera behar da, aldaketa politikoak egunkarietan eta paretetan irakurri, manifestazioak, polizia kaleetan ikusi fabriken ateak ixten direnean, bizitzaren eta patuaren mugak gaingitu, jolastu, maitatu, gurasoek esandakoak gogoratu, kultura ezberdinetako jendearekin pisu blokean egunero bizi; euskeraz hitz egiten ikasi, langabeziara joan, herriko jaietan gozatu...Konturatzen bagara berriro ere espazio horren ahalmena eta potentziala izugarria da. Norbaitek, ikuspegi oso pragmatikoarekin, esan dezake zertarako gai hauekin bueltaka ibili, baina erantzuna oso azkar dator. Nolako hiria nahi dugu? Konturatu nahi ote dugu gure hiriarekin daukagun harreman estuaz? Hiritar parte hartzaileak nahi ditugu geografian?

3. ZAHARRAK BERRI

Euskarazko esaera zahar honek hiriaren bizitzaren errealitatea adierazten digu. Hiriak eta hiritarrek ilusioak eta nahiak denbora mugagabeen adierazten dituzte, baina hiriaren espazioa gaurkotu egin behar da eta berriro behar egin da une eta gune historiko horretan bizi direnekin. Geografia historikoak abantaila dauka eta baita zor bat ere bere gizartearekin, hiri horretako oroimena jasotzeaz arduratu behar baitu, memoria historikoa zaintzeaz. Historiak eta memoria kolektiboak berriro biderkatu egiten du espazioaren bizitza.

Azpititulu honek bazuen beste izen baten aukera, hiri zaharra eta berriaren zikloa. Adibidez, bueltatzen bagara Euskal Herriko hiri industrial batera, Pasaia, Tolosa, Sestao...bere garaian, herri zaharra eraikuntza berriekin modernizatu zen, baina hiri horrek jauzi bat egin du denboran beste izendatze batera, hiri postindustriala. Biztanleak nola joaten dira ohitzen aldaketa horretara, bere denbora biologikoa (belaunaldia) bere denbora historikora eta espazio horretara: adibidez nola batu zeuden lantegiak, orain dauden lur sail soil horiekin eta etorkizuneko proiektu hauekin.

Lekuek memoria ez badute ez dira tokiak, “gps”aren koordinatuak dira soilik, leku abstraktuak, teknologia ekonomikoaren katearen beste urrats bat dira. Bertan, pertsonak, makinak, eta, ez lekuak, kontenedoreak izango dira gure tokiak. Kontenedorea modu metaforikoan erabili nahi dut:

- Pasaia badiako parte bat delako.
- Mundu globalizatuan munduko bazter guztietan agertzen delako.
- Inmigranteen etxe direlako bere zorigaitzoko bidaietan.

- Nortasundun lekuez hitz egin beharrean, tokiaren estandarizazio probokatzaileaz berba egin nahi dut, kezka sor dadin gure artean.
- Kontenedoreak etorkizun abstrakto batera garraiatzen gaitu, tokirik gabekoa.

Narrazioa egingo bagenu, fikziozko eleberri baten barnean egongo bagina bezala, espaziuntzi batean biziko ginatke, espazio zehatza ez dagoelako jadanik, merkeagoa bihurtu delako, etorkizuneko balizko denbora horretan ari gara murgiltzen narrazioan, kontenedore ultra erosoetan jendea bizitzen jartzera...Baina hiri ultramoderno hori ere zahartuko da denborarekin, agian. Jadanik espazioez ezin izango da hitzegi. Modu honetan denok ulertuko genuke espazio kontzeptuaren beraren garrantzia. Lekuak ere ondare humanistikoaren parte dira, baina bere kontserbazioa bertan benetaz bizitzen lortzen da. Topofiliak behar ditugu.

Orain arte espazioa lehen aldian kokatu dugu, usain nostalgikoa hartzen diogu modernoa izan zen hiriarri, bere lantegi, langileen auzoei eta arkitektura funtzionalei. Baina gure testuak izan dezake beste barne indar bat gaztetasunaren behar naturalaren parekoa. Hiria eta bere lekuak aldatzen ari dira, baina buelta gaitzen berriro lehenago aipatutako tabernara. Bertan, leku berean, sei gizonen historia desberdinak dauzkate eta bere ilobei istorio ezberdinak kontatuko dizkiete. Era kontzientean eta inkontzientean lotura izugarriak dauzkate beraien artean: hasteko, gu hemen azaltzen ari garen lekuaren kontzeptuarekin, baina baita portuaren inguruan egin duten lan horrekin guztiarekin ere, izerdia, grebak, umeak hazten ikusi eta leku hori garatu, gehienetan jakin gabe non zegoen norabidea, normala den bezala, hori baitago bizitzaren grazia.

Lekua aurreko hausnarketarekin, beste koordenada batekin, osatu nahi dugu: une eta gune honetan gaudenok nola isladatzen dugu leku hau etorkizunean, gure nahiekin nahastuta. Ildo horretatik, sei gizon horiek kai inguruko taberna horretan daudenak, beste lotura sendo bat dute: etorkizuna prestatzea edo bizitza leku horretan. Leku horrek, berriro ere, bere aukerak biderkatu egiten ditu diskurtso humanistiko honetan. Leku honetan, egiten ari garen sekuentziari hurrengo historia pertsonalak gehitu behar dizkiogu: pertsona bakoitzak jatorri bat zuen, eta konparazioak egiten ditu bere aurreko lekuekin. Demagun sei pertsona horietako bat, euskaraz aritzen den horietatik bat, hori ere Pasaian jaio dela, eta bere arbasoak ere bai. Modu existentzialistan, lekuen konparazioak egin behar ditu, gatazka bat sortuz bere pentsamenduan, gaur egungo lekuak, bere oroimeneko lekuak eta gurasoek kontatu

4. PORTUKO KONTENEDOREAK ALEGORIA MODUAN, ETORKIZUNeko BIZI LEKUAK

zizkioten lekuak nahasiz. Orain sei pertsona horiek modu baikorrean hitz egingo dute edo ezkorrean leku horren etorkizunari buruz. Modu horretan lekua etorkizuneko kontenedore bihurtu da Kaiaren alboan.

**5 ZERGATIK
NARRAZIO GISAN
IDATZI HIRI
POSTINDUSTRIALEAN?
BADAGO HELBURU
GEOGRAFIKORIK
LEKU BEREZI
HORJETAN? ETA
TOPOFILIAZ HITZ
EGITEKO PARADA
DUGU?**

Galdera sorta honi bukaera susmoa hartzen ari naiz, baina nahiago dut horrela izatea, tofophiliez hitz egiten ari garenez, nahiago baitut ondorio bukaezin horiek irakurleak egitea. Berriro ere lekuaren potentziala izugarri biderkatuko da. Bakoitzari bere buruan leku ezberdinen irudiak, oroimenak eta nahiak hasi zaizkio nahasten, eta beste azalduko dizkie. Hizkuntzarekin, aldi berean, espazio hipotetiko berri bat agertuko zaigu, literatura eta poesiarekin gertatzen den bezala.

Narrazioak, pertsonen arteko solasaldiak, gure buruarekin hitz egiteak pelikula batean egongo bagina bezala. Beti ageri dira espazioak. Berak beldurra eman dezake edo oroimen politik ekarri burura, baina beti hor dago espazioa. Modu horretan inportantea da guk geuk, hiritar gisa, gure espazioak geureganatzea, nahiz kutsu postindustrialia eduki kasu askotan. Erabiltzen ari garen espazio postindustrialia, Pasaiko badia, ez da betidanik erabili den leku ederraren eredu: baserri ingurukoa, zelai berdeekin osatutako herria, edo Erdi Aroko herri harresiduna, mahastien eta galsoroen artean paisaia kokatua dagoena. Pentsamenduak, besteekin komunikatzeak eta espazio hori harremanetan jartzeak aukera berriak sortzen dizkigu ikerlariei ere.

Helburu geografikoak zientzia bezala betetzen dira metodo kualitatibo hauekin. Zientzia guztietan bezala, ezin dira gaur egun erantzunak eman ikuspuntu bakar batetik. Pertsonen espazioarekiko loturak lagunduko digu. Elkartasunaren funtsezko balorea bultzatuz, pertsonak besteekin eta bere tokiekin lotura afektibo positiboa badu ere, espazio horretan aberastasuna lortuko da. Hortaz, ezin ditugu parametro ekonomikoak bakarrik erabili eta geografiaren kezka edo gako nagusi historikoa lortzen da, oreka eta bizi kalitatea bilatzea. Gure gizarte demokratikoan bizi gara espazioan eta gizaki artean, hau da, geografiaren funtsezko betebeharrak ikertu: espazioa gizakiarekin.

Artikulu honetan, zentratu beharrean, tofophilien hainbeste balizko definizioz ari garenean, nahiago dut espazio hori etorkizuneko erronka bezala ikusi eta horrela espazio horri aukerak zabaltzea.

Hona hemen proposamen eta hausnarketa batzuk, irekiak noski, komunitatearen ekarpenak ere jasotzeko, eta aldi berean aberasteko gure lurra tofophilien poesiarekin. Aukeran, espazio bezala, guk lehendik jorratu dugun ildotik jarraituko dugu, hiri postindustrialetik:

- Aukera sozial berriak daude, non identitate berriak sortuko diren, sustrai historikoekin eta apartazio berriekin. Pentsatu Pasaiako badian ematen den hizkuntzen elkarbizitzan: espainola, euskera, gaskoia, gailegoa, portugesa, arabearra, ukrainera etab. bizi izan dira historikoki, eta hobeto biziko dira etorkizunean (tolerantziaren balorea gaur egungo gizartean, nire uste apalean, izugarri ari da indartzen). Euskara, espainolarekin batera komunikazio tresna izango da eta koherentzia emango dio eskualdeari, denen hizkuntzak izango direlako biak eta, modu horretan, erakunde ofizialek, bultzatu egin behar dute euskara eta espainolaren binomio hori Pasaiako badian, zubi kultural handi bat izan dadin Gipuzkoako lurralde guztiarekin eta, noski, Euskal Herria eta Espainarekin, berriro mantentzen dugu geografia epistemologiaren baitako eskualdearen garrantzia historiko saiakera hori.
- Aukera berriak ingurumenean espazio hondatueta, ireki daitezten itsasoaren eta mendien edertasunera, hiri postindustrialekin batera. Hemen edertasunaren kontrasteaz ere hitz egiten ari gara, zeren eta kaieko toki batek bizitzaren asaldurez eta emozioez hitz egin dezake oroimen eder bat bezala. Edo Uliako berdeguneak, edo itsasoak haserre dagoenean uzten duen usaina, sentsazio desberdinez aritzen gara. Ingurumen proiektu berritzaileek, benetan bere gizarteari begira badaude eginda, kontutan hartu behar dute hiri industrial hauekin zor historiko bat dagoela. Frankismo garaiko garapen suntsitzaileek ez zuten espazio hauetan modu iraunkor batetan aberastasuna banatu. Bere historian, Pasaiako badiak inpaktu hauek jasan ditu, beste batzuen artean: kutsadura atmosferikoa, zentral termikoa, nazional bat errepidea Pasai Antxotik pasatzen zen, txatarra da portuaren merkantzia inportantenetako bat, eta bere ondorioetako bat metal hautsa, edota itxi berri den zabortegia (San Marcos, Gipuzkoako handiena izandakoa, justu Altza auzoaren atzekaldean), guztiz kutsatutako ibaiak, kiratsak adierazten duen moduan bai Oiartzun ibaian bai Molinao errekan. Hirigintza proiektu berrietan, Pasaiako badian adibidez, pentsatu behar dugu duintasunez jokatzeko espazioarekin eta bertan bizi diren pertsonekin eta toki horiekin. Topofilien historia batetaz hausnarketa egiten ari gara, nahiz eta espazio horiek bere jatorria urbanizazio basatiak egiten ziren garaian izan, hau da, Frankismoan. Benetan balore humanistikoaren hiri bat nahi badugu, hiritarren iritziak, nahiak eta tokiak errespetatu behar ditugu. Geografia humanistikoaren ikuspuntutik proiektu baten hausnarketa egiten badugu ez dute pisua bakarrik arlo teknikoak eta politikoak, hor daude hiritarrak eta beraien topofiliak. Urbanizazio berriak ez baditu ezugarri hauek kontutan hartzen, hiritarrek maite duten toki batetik, nortasun sustraiak ematen dizkien aldetik, “ez toki “ batera pasako lirateke.

Espazioa merkatuko kontsumo objektu bat bihurtuko litzateke; etxea, aldi berean, bizitzeko makina bat, eta, galdera gisa, orduan nola deitu hiritarrari. “Ez tokia” gertatzen da leku bat ez delako jadanik aipatzen ere, edo leku hori eta bere biztanleak indarrez desagertzen direnean “geografias de la invisibilidad” (Nogué, 2005).

- Aukera estetikoak, ondarearen kontzeptua. Pasaiako badian sortzen den hiria, Euskal Herrian dagoen adibide ederrenetako bat da industrializazio garaia ikusteko, hirogei eta hirurogeita hamar hamarkadetakoa batik bat. Zonalde hori irla baten gisara gelditu da, ikutu gabe, azken urteetako espekulazioatik kanpo, adreiluaren boom fenomenotik at ia. Hitz egiten ari garen espazio honek mende erdia dauka historia bezala, hau da, teknikoki hirigintza babesteko orain hartzen ditugun parametroen barruan gera daiteke. Edo, bestela, zenbait espazio eta etxebizitza geldituko dira beste hiri batean, loturarik gabe, leku marginalak bihurtzeko arriskua sortuz hirian.

Artikulu hau idatzi dugu “Itxaropenaren Geografia bat” bezala, non arazo politiko, ekonomiko eta ekologikoen gainera gure hiri kontzeptu harmonikoaren eta humanistikoaren erronka azaldu dugun.

BIBLIOGRAFÍA

ALBET, A. "¿Regiones singulares y regiones sin lugares? Reconsiderando el estudio de lo regional y lo local en el contexto de la geografía postmoderna. *Boletín de la AGE*, nº 32, 2001 pags 35-52, AGE, Madrid.

IRAOLA, I. "Didáctica de la Geografía Humanística: explorar el concepto de lugar en la ciudad postindustrial. Mostrar la acción educativa desde la narración del profesor". Tesis doctoral inédita. Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea. Leioa. 2007

IRAOLA, I. "Compartir espacios. Enseñar en la ciudad postindustrial". *Fabrikart*, nº 7, . Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea. Bilbao. 2007, pags, 90-96

JUARISTI, J. "Identidad, espacio público, cultura y miedo" .La ciudad y el Miedo *VII coloquio de Geografía Urbana*,, Universidad de Girona, Girona. 2005. pags, 269-288

LINDÓN, A. "El constructivismo geográfico y las aproximaciones cualitativas" *Revista de geografía Norte Grande*. Nº37, Universidad Pontificia Católica de Chile. Santiago. 2007, pags 1-15.

LINDÓN, A. "La miseria y la riqueza en la vida cotidiana en la ciudad: el pensamiento de Lefebvre". *Revista Litorales*, nº3,. Universidad de Buenos Aires. Buenos Aires. 2003, pags 1-20

NOGUÉ, J "Las geografías de la invisibilidad". En, Paisatges incognits ocults: les geografies de la invisibilitat. Iller Seminari internacional sobre paisatge; Paisajes incógnitos, territorios ocultos: *Las geografías de la invisibilidad*. Observatori del Paisatge-CUIMPB. Olot 2005.

NOGUÉ, J "El retorno al lugar: la creación de identidades territoriales". *Claves de la razón práctica*, nº92,. Progreso. Madrid. 1999, pags 9-11

SANTOS, M "Por una geografía nueva" Espasa Universidad. Madrid. 1990